# Jarduera fisikoa eta kirolaren aholku kontseilua

Paul Yarza Agirregomezkorta

mar 21/03/2017 18:08

Para:Abiapuntu <abiapuntu@udalermua.net>;

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
REGISTRO GENERAL/ERREGISTRO OROKORRA
ENTRADA/SARRERA
Fecha/Data 22-03-17 09:07:58
Num./Zk. 2.276

2 archivos adjuntos (856 KB)

CONSEJO ASESOR DEL DEPORTE DEL AYUNTAMIENTO - copia.pdf; JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN PLAN INTEGRALA.doc;

**Egun on.**

Paul Yarza Agirregomezkorta, 15.376769G nan zenbakia duenak, 2017ko martxoaren 20an, Euskal Herria Bildu Ermua udal taldearen izenean,Jarduera fisikoa eta kirolaren plan integrala lantzeko eta kirol eta jarduera fisikoaren aholku kontseilua sortzea atxikitutako mozioa aurkezten dut Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Paul Yarza
Ermuko EH Bildu

ehbildu

Ermuko EH Bildu

| ZERA LANTZEA ESKATZEN DUGU:<br>1.- JARDUERA FISIKOA ETA KIROLAREN PLAN INTEGRALA.<br>2.-KIROLA ETA JARDUERA FISIKOAREN AHOLKU KONTSEILUA SORTZEA. | SOLICITAMOS LA ELABORACION DE :<br>1.- PLAN INTEGRAL DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y DEL DEPORTE.<br>2.- LA CONSTITUCION DEL CONSEJO ASESOR DEL DEPORTE Y ACTIVIDAD FISICA. |
|---|---|
| | |
| **Kirola, XXI. mendeko fenomeno soziala.** | **El deporte como fenómeno social del Siglo XXI.** |
| Azken urteetan gure bizimoduan izandako aldaketak hausnarketa eskatzen du, kirola egitea fenomeno sozial bihurtu baita gure gizartean. Kirolak grina pizten du, emozioak eragiten ditu, aisialdia aberasten du eta eraiki nahi dugun gizartearen parte eta oinarri diren hainbat balio bultzatzen ditu; gainera, frogatuta dago integraziorako tresna bereziki eraginkorra dela. Badirudi gizartea behingoz esnatu dela eta ulertu duela kirola ezinbesteko elementua dela gure gizarteak egituratzeko. | Los cambios ocurridos en los últimos años en nuestra forma de vida exigen una reflexión, pues la práctica del deporte aflora como fenómeno social en nuestra sociedad. El deporte fomenta el enriquecimiento del tiempo libre y lleva incorporado una serie de valores que son parte y fundamento de la sociedad que queremos construir. La sociedad parece que definitivamente ha despertado a la realidad del reconocimiento del deporte como elemento esencial para la vertebración de nuestras sociedades. |
| Lehentasun sozialaren maila eman behar izan zaio, ikusi baita oso eraginkorra dela gizarte-kohesioa eta ezberdinen arteko integrazioa egituratzeko, inklusioko eta parekidetasuneko politikak lantzeko eta hizkuntzen arteko berdintasuna garatzeko; eta gizarte jasangarriagoa bultzatzeko eta gizarte aktibo eta kooperatiborako ezinbestekoak diren ikaskuntza guztietan hezteko gai den ingurunea sustatzeko tresna egokia denez, gizarteak kirolaren inguruko ikuspegia guztiz aldatu du eta horrek eraman gaitu Kirolaren Plan Integrala egitera. | La necesidad de darle el rango de prioridad social, dado que se ha mostrado absolutamente eficaz como instrumento para impulsar la cohesión social y la integración entre diferentes, para trabajar políticas inclusivas de paridad, para propiciar una sociedad más sostenible y para la promoción de un entorno capaz de educar en toda una serie de aprendizajes esenciales para una sociedad activa y cooperativa, nos ha llevado a replantearnos la actividad deportiva en su conjunto y, por lo tanto, a plantearnos la necesidad de realizar este Plan Integral de la actividad física y del deporte. |
| Agian, kirolaren ideia aldatzeko beharrik handiena eragin du osasunaren ideiaren inguruko planteamendu berriak, ziurrenik, eta jarduera, oro har, prebentzioko elementu eztabaidaezin gisa ikusteko joerak. Esparru horrek errebindikatzen du kirolaren ikuspegiak askoz ere zabalagoa behar duela izan, gizarte aktiboagoa, jasangarriagoa | Y, quizás, la mayor necesidad de transformación del enfoque del deporte esté viniendo del nuevo modo de entender la salud, y de la incipiente determinación de incluir la actividad en general como elemento preventivo incuestionable. Ámbito, que está reivindicando una visión de la concepción del deporte mucho más amplia, una |

| | |
|---|---|
| sustatuko duen bizimodua bultzatzen duten kirol-politiken aldeko apustua egiten duen ikuspegia, alegia, bizimodu parte-hartzailea eta osasungarria, inklusiboa eta parekidea bultzatuko dituena. Sedentarismoaren aurkako borrokatik sortzen ari da diskurtso bat bizitzaren esparru eta aldi guztiak biltzen dituena, azken urteetako ikerketa ugariren babesarekin, frogatu baita bizimodu aktiboak onura pertsonalak nahiz sozialak eragiten dituela. | visión que apueste por desarrollar unas políticas del deporte que promuevan un estilo de vida activo capaz de propiciar una sociedad más activa. De la mano de la lucha contra el sedentarismo está surgiendo un discurso que abarca a todos los ámbitos y periodos de la vida, discurso que viene alimentado por los innumerables estudios realizados en los últimos años que informan de los beneficios tanto personales como sociales que produce una vida activa. |
| Erakundeek kirol-politiken alde egindako apustuak erakusten du eraldaketa kulturalak eta sozialak gizarte parte-hartzailea defendatzen duela, gizarte eragileak gobernantza berrirako beharrezko eragile gisa ikusten dituen gizartea. Eta kirolaren arloan ematen dira, hain zuzen ere, asoziazionismoaren, borondatezko eta elkartasuneko lanaren kotarik altuenak (herriko datuak) eta herritarrek ere hor erakusten dute parte hartzeko joera handiena. Kirolaren inguruan bilerak suertatzen dira, informazio-trukeak, gizarte-sareak trinkotzen ditu eta elementu garrantzitsua da kapital soziala sortzeko; hartara, kirola, ikuspegi instituzionaletik, gehiago ikusten da tresna sozial gisa, xede bezala baino. | La implicación institucional decidida en políticas de deporte se ha convertido en un indicador de transformación cultural y social que aboga por un tipo de sociedad participativa que reconoce a sus agentes sociales como actores necesarios de la nueva gobernanza. Es precisamente en el ámbito deportivo donde se dan las mayores cotas de asociacionismo, trabajo voluntario y solidario, y donde la ciudadanía tiende a mostrarse más colaborativa. El deporte es un ámbito que propicia reuniones, intercambio de información, densifica las redes sociales y es un elemento importante de la creación de capital social, por lo que el deporte desde el punto de vista institucional se percibe cada vez más como una herramienta social que como un fin en sí mismo. |
| Kirolaren ikuspegi berriak diziplinarteko izaera nabarmena duenez, Plan Integrala justifikatzen duen eta horrek bete nahi duen beste helburu bat da Udaleko hainbat esparruren arteko lankidetzan eta koordinazioan lan egitea kirolaren sustapenak aurrera egin dezan. Kirolaren Plan Integralaren helburua da egungo errealitatearen diagnostikoa egitea, kirolak gure gizartean duen funtzioaren ikuspegi berria eraikitzeko eta horren bidez etorkizuneko plangintza antolatzeko. | Dado el marcado carácter interdisciplinar de esta nueva concepción del deporte, otro de los objetivos que persigue y justifica la elaboración de este Plan es trabajar para que la promoción del deporte avance en cooperación y coordinación de los diversos ámbitos municipales y sociales. Es objeto de este Plan, pues, servir también de diagnóstico de la realidad actual en aras a construir una nueva visión de la función del deporte que contribuya a una mejor planificación del futuro. |

**Kirolaren Aholku Kontseilua arautuko duen Erregelamendua.**

**ZIOEN AZALPENA**

Botere publikoei dagokie, jendearen nortasuna libreki garatzearren, gauzak erraztea herritarrek politikan, ekonomian, kulturan eta gizarte-eginkizunetan esku har dezaten, besteak beste, hori delako politika-ordenaren eta bake sozialaren funtsa. Herritarrek afera publikoetan zuzenean edo ordezkarien bidez esku hartzeko eskubidea arlo guztietan sustatu eta adierazi behar da, hots, bai pertsonei indibidualki dagokienean, hala nola talde gisa jarduten dutenei. Ildo horri jarraiki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 69. artikulua aipatu behar da, zeinak herritar orok herriko bizitzan esku har dezan Tokiko Korporazioek gauzak erraztu behar dituela baitio.

Ariketa fisikoa eta kirola, osasuntsuak izateaz gain, aspalditik garrantzi handiko jarduerak izan dira balioetan hezteko. Azken urteotan, gure gizarteak izan duen bilakaera dela-eta, kirolak garrantzi handiagoa hartu du kohesio sozialeko elementu gisa.

Aholku Kontseilu honen helburua da udalerriko kirol eragileak biltzea, denon laguntzarekin herriaren eta herritarren beharrak ezagutzera eman eta behar horiei erantzuna emateko beharrezko baliabide eta ekimenak abian jar daitezen.

Hainbat esparrutako eragileak elkartzeak bermatu egiten du jarduera fisikoaren eta kirolaren adierazpide guztien ezagutza, eta kirol

**Reglamento Regulador del Consejo Asesor del Deporte.**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Corresponde a los poderes públicos facilitar la participación de toda la ciudadanía en la vida política, económica, cultural y social como instrumento que propicie el libre desarrollo de la personalidad, que es el fundamento del orden político y de la paz social. El derecho de la ciudadanía a participar en los asuntos públicos bien directamente bien por medio de representantes, debe promoverse y expresarse en todos los ámbitos, tanto en referencia a las personas individualmente consideradas, como respecto a los grupos de diversa naturaleza que la integran. En ese sentido, debe atenderse al artículo 69 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local disponiendo que las Corporaciones locales facilitarán la participación de todos los ciudadanos en la vida local.

El ejercicio físico y el deporte, además de ser saludables, han constituido desde hace tiempo una actividad de gran importancia para la educación en valores. Durante los últimos años, debido a la evolución que ha experimentado nuestra sociedad, el deporte ha cobrado una mayor importancia como elemento de cohesión social.

El objetivo de este Consejo Asesor es reunir a los diferentes agentes deportivos del municipio, de modo que con la ayuda de todos se hagan públicas las necesidades del municipio y de la ciudadanía, y se pongan en marcha los recursos y las iniciativas necesarias para dar respuesta a dichas necesidades.

El hecho de reunir a agentes de distintos ámbitos posibilita el conocimiento de todas las diferentes expresiones de la actividad física y el deporte, y la

jarduera parte-hartzaile eta hezigarria sustatzea ahalbidetzen du, herritar guztiei irekia.

posibilidad de ofrecer más oportunidades para la promoción de la actividad deportiva participativa y educativa, abierta a toda la ciudadanía.

Udalerriko talde eta eragileak elkartzeak aukera paregabea eskaintzen du kohesioa eta parte-hartzea sustatzeko, eta bide ematen digu udalerria eraikitzean mahai horrek izango duen garrantzia aurreikusteko.

La reunión de distintos grupos y agentes del municipio ofrece una oportunidad inmejorable para promover la cohesión y la participación, y nos da la opción de prever la importancia que tendrá dicha mesa con respecto a la construcción de la identidad de un municipio.

Zentzu horretan, Udalaren eginkizuna, kirolak dagokion protagonismoa eskuratu dezan, benetako praktika lortu eta norbanakakoen zein kolektiboen eskubideak bermatzea da. Horretarako, kirol politiken koordinazioa hobetzea eta, erakundeen jarduera bultzatze aldera, gizarte eragileen inplikazioa laguntzea izango da Aholku Kontseilu honetan erabili beharreko filosofia, eta ahalegin hori bat dator herriari dagozkion eztabaida eta erabakietan herritarren parte hartzea bultzatzeko apustuarekin

En este sentido, la función del Ayuntamiento para que el deporte adquiera el protagonismo que le corresponde, es la de lograr una práctica real y garantizar los derechos individuales y colectivos de la ciudadanía. Por ello la filosofía que debe aplicarse en este Consejo Asesor es la de mejorar la coordinación de las políticas deportivas y apoyar la implicación de los agentes sociales para impulsar la actuación institucional, que coincide plenamente con la apuesta realizada para favorecer la participación ciudadana en los debates y decisiones de las políticas concernientes a la villa

Zentzu horretan, Kirolaren Aholku Kontseilua (EAK) tresna eraginkorra gerta daiteke udal kirol politika partekatua bultzatzeko, bai herri administrazioak bai Errenteriako gizarte eragileek adostuta.

En este sentido, el Consejo Asesor del Deporte puede ser un instrumento muy eficaz para impulsar la política deportiva municipal, compartida, tanto por la administración pública como por los agentes sociales del municipio.

## ATARIKO TITULUA

### *1. Eratzea*

Udalak aitortzen du kirola egiteko eskubidea oinarrizkoa dela eta, ondorioz, botere publikoek herritar guztiei bermatu beharrekoak. Era berean uste du gobernatze onak bete behar dituen printzipioetako bat dela herritarrek kirol politiken sorreran eta proiektu eta programak planifikatzen eta ebaluatzen parte hartzea. Horrenbestez, duen garrantzi estrategikoa dela eta, eratzen da Kirolaren Aholku Kontseilua.

## TITULO PRELIMINAR

### *1. Constitución.*

El Ayuntamiento reconoce que el derecho a la práctica deportiva es fundamental y, por tanto, algo que los poderes públicos han de garantizar a toda la ciudadanía. Asimismo entiende que los principios de un buen gobierno incluyen la participación ciudadana en la concepción de las políticas deportivas y en los procesos de planificación y evaluación de proyectos y programas. En consecuencia, y de

acuerdo con su importancia estratégica se constituye el Consejo Asesor del Deporte.

***2. Aholku Kontseiluaren izaera.***

Kirolaren Aholku Kontseilua kide-anitzeko organo aholku-emailea eta eztabaidatzailea da.

Organo aholku-emaile eta eztabaidatzaile hau udalerrian garatzen den kirol arloan diharduten pertsona fisiko, elkarte eta erakundeetako ordezkarien harreman-organoa izango da.

Kontseiluaren esku-hartzea bere eginkizuntzat hartuko dituen gaien azterketan adieraziko da, eta horietan eginiko proposamenak edo alternatibak ez dira Udalarentzat lotesleak izango.

Kontseiluak Udalari eginiko proposamen edo alternatibak behin betiko onespenean kontuan hartuak izango ez balira, zergatiak adierazita erantzungo dira.

Kirolaren Aholku Kontseiluak Udalarekin izan beharreko harreman guztiak Batzorde Informatiboaren bidez izango ditu.

***2. Naturaleza del Consejo Asesor.***

El Consejo Asesor del Deporte es un órgano colegiado de carácter consultivo y deliberante.

Este órgano consultivo y deliberante constituirá un espacio de encuentro de las diversas personas físicas, asociaciones e instituciones implicadas en el área del deporte que se desarrolla en el municipio.

La intervención del Consejo se manifiesta en el análisis de las cuestiones que tome en consideración, que podrán contener propuestas o alternativas de carácter no vinculante para el Ayuntamiento.

Las propuestas o alternativas presentadas por el Consejo ante el Ayuntamiento y que no sean atendidas por éste deberán ser contestadas motivadamente.

Todas las relaciones entre el Consejo Asesor del Deporte y el Ayuntamiento se mantendrán a través de la Comisión Informativa.

***3. Aholku Kontseiluaren egitekoak.***

Kirolaren Aholku Kontseiluaren eginkizunak ondorengoak dira:

1. Udal instalazio sarea eta kirol eskaintzak aztertu eta hobetzeko proposamenak egitea.

2. Herriko kirol eragileen iradokizunak

***3. Funciones del Consejo Asesor.***

Son funciones del Consejo Asesor del Deporte:

1. Elaborar propuestas de análisis y mejora de la red de instalaciones y ofertas deportivas municipales.

2. Someter a debate las sugerencias de los

eztabaidara eramatea.

3. Herritarren artean jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak gidatzea, jarrera aktiboago eta parte-hartzaileagoa izan dezaten.

4. Kirol eragileen ohiko jardueretara bideratutako dirulaguntzak banatzeko araudia onar dadin proposatzea.

5. Udal kirol espazioak erabiltzeko araudiak onar daitezen proposatzea.

6. Kirol eragileen harreman eta koordinazio gune bilakatzea.

7. Urteko kudeaketa planen diseinuan eta jarraipenean parte hartzea.

8. Udalerrian kirolarekin zerikusirik duten gaiak aztertzea.

9. Udalarekin elkarlanean aritzea Kirolarekin zerikusia duten eta herrian gartzen diren Plan Estrategikoen elaborazioan.

distintos agentes deportivos del municipio.

3. Guiar iniciativas para promover la actividad física entre la ciudadanía con el fin de que tengan una actitud más activa y participativa.

4. Proponer para su aprobación la normativa para la distribución de subvenciones destinadas a las actividades habituales de los diferentes agentes deportivos.

5. Proponer para su aprobación los reglamentos de utilización de los diferentes espacios deportivos.

6. Convertirse en punto de relación y coordinación entre distintos agentes deportivos.

7. Participar en el diseño y seguimiento de los planes anuales de gestión.

8. Estudiar y analizar cuantas cuestiones se refieran al deporte en el municipio.

9. Colaborar con el Ayuntamiento en la elaboración de los Planes Estratégicos relacionados con el Deporte y que se desarrollen en el municipio.

Egokitzat joz gero, Kirolaren Aholku Kontseiluak lantaldeak era ditzake plan estrategikoaren bere helburu estrategikoei loturik, edo sor litezkeen egoerei aurre egiteko.

El Consejo Asesor del Deporte, si lo considera necesario, podrá organizar diferentes grupos de trabajo, en función de sus objetivos estratégicos o de las necesidades puntuales que pudieran surgir.

***4. Partaideak.***

Kirolaren Aholku Kontseiluko kideak ondorengoak izango dira:

1.- Lehendakaria: Alkatea.

Alkateak eskuordetza espresuki emanda, Kirola Azpisailaren Batzordearen zinegotzi ordezkaria arituko da kontseiluburu.

***4. Composición.***

El Consejo Asesor del Deporte contará con las siguientes personas miembros:

1.- Presidencia: Alcalde/sa.

Por delegación expresa del Alcalde/sa, la presidencia será ejercida por la persona Concejal delegada de la Comisión Informativa del Subárea

de Deportes.

2.- Kirola Azpiasailaren idazkaria.

2.- Secretario del subarea de Deportes

3. -Udaleko Kirola Azpisaila Departamentuko Kirol Dinamizatzailea.

3.- El Dinamizador Deportivo de la Subárea de Deportes del Ayuntamiento.

4.- Errotuta dauden klub federatuen zortzi ordezkari, honela banatuta:

4.- Ocho representantes de los diversos clubes federados con implantación en el municipio, distribuidos de la siguiente manera:

- Futbol taldeen bi ordezkari, eskubaloiko bi, atletismoko bi eta mendiko beste bi.
- Beste kirol minoritario batzuen edo Udal kirol instalazioen ohiko erabiltzaile diren pertsonen hiru ordezkari.

- Dos personas en representación de los clubes de fútbol, dos de balonmano, dos de atletismo y dos de montaña.
- Tres personas en representación de otros deportes minoritarios o que sean usuarias habituales de las instalaciones deportivas municipales.

3.- Udal Eskola Kontseiluaren ordezkari bat.

3.- Una persona representante del Consejo Escolar Municipal.

4.- Gehienez beste sei pertsona (ahotsa izango dute baina boto ahalmenik ez), udalerrian kirola sustatzeko zereginean nabarmentzen diren herritarren eta esanguratsuak diren edo parte hartzeko interesa azaldu duten andre-gizonen artean aukeratutakoak.

4.- Hasta seis personas miembros (con voz pero sin voto) elegidas entre la ciudadanía y representantes de asociaciones que destaquen por su labor en la promoción del deporte en el municipio ó que muestren su interés por participar.

Sei kide hauek eta udal kirol zuzendaria eta dinamizatzaileak ahotsa izango dute baina boto ahalmenik ez, eta ez dira izango Kontseiluko eskubide osoko kide Kontseilua eratzeko quorumari, gehiengoei eta bozketei dagokienean:

Esta seis personas miembros así como el Director y el Dinamizador deportivo tendrán voz pero no voto, y no serán considerados miembros de pleno derecho del Consejo a los efectos de quórum para su constitución, mayorías y votaciones.

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoak kontuan hartuta, Kirolaren Aholku Batzordea

Teniendo en cuenta lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se dispondrán medidas al

osatzeko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin (sexu biek, gutxienez, %40ko ordezkaritza) neurriak hartuko dira.

Lege horretan bertan jasotakoari jarraiki, kideak aukeratzeko prozesuan sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak, emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak ez dira inola ere kide gisa onartuko.

Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ezingo dute parte hartu, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Kirolaren Aholku Kontseiluko kideak entitate baten ordezkari izanez gero, entitateak berak proposatuko du ordezkaria eta horren ordezkoa. Horrez gain, kide horiek entitate bakar baten izenean hartuko dute parte. Pertsona batek ezin izango du, inolaz ere, entitate bat baino gehiago ordezkatu.

Kide horiek Aholku Kontseiluak izendatuko ditu, interesatuak idatziz eskatu eta Kirol Departamentuko Teknikari Koordinatzaileak proposatutakoari jarraiki. Izendapenak bi urterako izango dira. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko aukera izango da, betiere bi urteko epeetan eta gehienez sei urtez.

Kide horietakoren bat ordezkatu behar izanez gero, Aholku Kontseiluak beste kide bat izendatuko du, aurrekoari geratzen zitzaion denboraldirako.

objeto de que en la composición del Consejo Asesor del Deporte la presencia de mujeres y hombres sea equilibrada (los dos sexos, como mínimo 40% de representación).

En cumplimiento de lo dispuesto por esa misma Ley, aquellas asociaciones u organizaciones que en el proceso de admisión de socios discriminen por razón de sexo, no permitan la participación equilibrada de hombres y mujeres u organicen actividades que impidan esa igualdad en la participación no serán aceptadas como miembros del Consejo Asesor.

No podrán tomar parte aquellas personas físicas o jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, en tanto en cuanto continúe en vigor la correspondiente sanción.

Los personas miembros del Consejo Asesor del Deporte que participen en nombre de una entidad, asi como su suplente, serán propuestas por la misma. Además, sólo podrán participar en nombre de una sola entidad y de ninguna forma podrá una sola persona representar a más de una entidad.

Las personas miembros serán nombrados por el Consejo Asesor a solicitud por escrito del interesado y a propuesta del Subárea de Deportes, para un período de dos años que, en cualquier caso, será prorrogable por períodos de dos años, hasta un máximo de seis años consecutivos.

En caso de que haya que sustituir a alguno de sus miembros, el Consejo Asesor procederá a nombrar, en su caso, a otro miembro por el mismo tiempo que restaba a su predecesor/a.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari aurka egin gabe, Aholku Kontseiluko kideek kontseilukide izateari utziko diote ondorengo kasuetan:

a) Norberaren borondatez, betiere idatziz adierazten badu.

b) Erregelamendu honetan adierazitako funtzioak behin eta berriro ez betetzeak eragindako enkaitzeagatik.

c) Ordezkatzen duen Elkarte, talde edo kolektiboa desagertuz gero.

d) Elkartearen Estatutuetan izendatu izanaren inguruko funtsezko aldaketarik emanez gero.

e) Lehendakaritzaren kasuan, delegazioa aldatu edo uzteagatik.

f) Ordezkatzen duen elkartea uzteagatik.

g) Heriotzagatik.

Aholku Kontseilukide izateari uztea Kontseilu-Udalbatzak berretsiko du, Lehendakaritzaren proposamenari jarraiki.

Halaber, kirolarekin zerikusirik duten erakunde eta elkarteen ordezkariak ere joan ahal izango dira bileretara, Lehendakariak gonbidatuta, baldin eta Euskararen Aholku Kontseilura joateko interesa erakutsi badute eta bere presentzia baliagarria bada, unean aztertu behar diren gaietan duten esperientziagatik. Gonbidatu horiek ez dira izango Kontseiluko eskubide osoko kideak Kontseilua eratzeko quorumari, gehiengoei eta bozketei dagokienean.

***5. Kirolaren Aholku Kontseilukideen egitekoak.***

***5.1. Lehendakariaren funtzioak.***

- Kirola Azpisailaren Batzorde Informatiboaren ordezkari izatea.

Sin perjuicio de lo dispuesto en los dos párrafos anteriores, perderán su condición de miembros del Consejo Asesor:

a) Por voluntad propia expresada por escrito.

b) Por remoción debido a incumplimiento reiterado de las funciones expresadas en el presente reglamento.

c) Por la disolución de la Asociación, grupo o colectivo que representa.

d) Por cambio sustancial en los Estatutos de la Asociación que modifiquen el criterio por el cual fue designado/a.

e) Por cambio de delegación o cese, en el caso de la Presidencia.

f) Por cese en la asociación a la que representa.

g) Por fallecimiento.

La ratificación de la pérdida de la condición de miembro del Consejo Asesor será efectuada por el Consejo-Pleno a propuesta de la Presidencia.

Asímismo, podrán acudir en calidad de invitados por la Presidencia, representantes de entidades y asociaciones relacionadas con el deporte que muestren su interés en asistir al mismo y cuya presencia suponga un valor añadido por su experiencia en los temas a tratar en cada momento. Las personas invitadas no serán consideradas miembros de pleno derecho del Consejo a los efectos de quórum para su constitución, mayorías y votaciones.

***5. Funciones de las personas miembros del Consejo Asesor del Deporte.***

***5.1. Funciones de la Presidencia.***

- Representar a la Comisión Informativa del Subárea de Deportes.

- Ohiko eta ez ohiko bileretarako dei egitea.
- Gai Zerrenda onartzea.
- Entitate, elkarte edo herritarrek oro har gonbidatu gisa bertaratzeko egindako eskaerak tramitatu eta bidezko gonbidapenak bidaltzea.
- Aholku Kontseiluaren kide ez diren Udal teknikariak eta erakunde, talde politiko eta elkarteen ordezkariak gonbidatzea.
- Bileraburu izatea eta bileren garapena moderatzea.
- Herritarren parte-hartzea bermatzea.
- Aholku Kontseilukide izateari uzteko proposamenak egitea.
- Aholku Kontseiluaren ekimen eta proposamenak Udaleko Batzorde Informatiboari eta hala badagokio Udalbatzari, helaraztea, horiek bidera ditzaten.
- Aholku Kontseiluaren aktak eta hartutako erabakien ziurtagirien oniritzia ematea.
- Aholku Kontseiluaren presidente izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

- Convocar las sesiones ordinarias y extraordinarias.
- Aprobar el Orden del Día.
- Resolver las solicitudes realizadas por entidades, asociaciones o ciudadanía en general para asistir en calidad de personas invitadas y cursar las invitaciones correspondientes.
- Invitar al personal técnico municipal, así como a representantes de entidades, grupos políticos y asociaciones o particulares que no sean miembros del Consejo Asesor.
- Presidir y moderar el desarrollo de las reuniones.
- Garantizar la participación ciudadana.
- Proponer la pérdida de la condición de miembro del Consejo Asesor.
- Trasladar a la Comisión Informativa del Ayuntamiento y al Pleno de la Corporación si procede, las iniciativas y propuestas del Consejo Asesor para su tramitación.
- Visar las actas y certificaciones de los acuerdos del Consejo Asesor.
- Desempeñar cuantas otras funciones sean inherentes a la condición de Presidencia del Consejo Asesor.

***5.2.- Kirol Teknikariaren funtzioak.***

- Lantzen diren kirol gaien inguruko aholkularitza ematea.
- Lehendakaritzari Aholku Kontseiluaren bileretako gai zerrendan sartu beharreko gaiak proposatzea.

***5.2.- Funciones del Técnico de Deportes***

- Asesorar sobre los aspectos deportivos que se traten.
- Proponer a la presidencia los temas a incluir en el orden del día de las sesiones del Consejo Asesor.

***5.3.- Idazkariaren funtzioak.***

***5.3.- Funciones de la Secretaría.***

- holku Kontseiluko bileretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe. Bileretako aktak egitea eta sinatzea.

- Akta guztiak Kirol Departamentuan gorde eta Aholku Kontseiluko kideen esku izatea.

- Aholku Kontseiluaren bileretarako deialdiak bidaltzea, gai zerrendak eta azken bilerako aktarekin batera.

- Aholku Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea, eta erabaki horien ziurtagiriak egitea.

- Aholku Kontseilukideen alta eta baja eskariak jaso eta tramitatzea, baita dagokion Erregistroa kudeatzea ere.

- Artxibo eta erregistro eginkizunak betetzea, baita Idazkari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun ere.

***5.4.- Kirolaren Aholku Kontseilukideen eskubideak eta betebeharrak:***

a) **<u>Kontseilukideen eskubideak:</u>**

- Aholku Kontseiluaren bileretako eztabaidetan parte hartzea, hitza eta boto eskubidearekin.

- Gai ordenean jasota ez dagoen gairen bat proposatzea. Horrelakoetan Aholku Kontseiluak gehiengo soilez hartuko du gaia eztabaidatzeko erabakia.

- Kirolaren politikari buruzko proposamenak planteatzea.

- Aholku Kontseiluak hartutako erabakiak betetzearren garatzen diren ekintzei buruzko informazioa jasotzea.

- Asistir, con voz pero sin voto, a las sesiones del Consejo Asesor y levantar acta de las mismas y autorizarlas con su firma.

- Custodiar todas las actas en el Departamento de Deportes y mantenerlas a disposición de las personas miembros del Consejo Asesor.

- Cursar las convocatorias del Consejo Asesor, acompañando a las mismas el orden del día y el acta correspondiente a la sesión anterior.

- Tramitar los acuerdos del Consejo Asesor y expedir certificaciones de dichos acuerdos.

- Recibir y tramitar las solicitudes de altas y bajas de los miembros del Consejo Asesor, así como llevar el Registro correspondiente.

- Desempeñar las funciones de archivo y registro, así como cuantas otras funciones le sean inherentes a su condición de Secretario/a.

***5.4.- Derechos y deberes de las personas miembros del Consejo Asesor del Deporte:***

a) **<u>Derechos de las personas miembros:</u>**

- Participar, con derecho a voz y voto, en los debates de las sesiones del Consejo Asesor.

- Proponer temas no incluidos en el orden del día. Su inclusión se aprobará por mayoría simple de las personas miembros del Consejo Asesor.

- Plantear propuestas sobre política deportiva.

- Recibir información sobre las actividades que se realicen en cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Consejo Asesor.

- Aholku Kontseiluko aktak eta dokumentazio guztia eskuratu ahal izatea.

- Erregelamendu honek nahiz indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste eskubide guztiak.

b) Kontseilukideen betebeharrak:

- Aholku Kontseiluko bileretan nahiz kide diren lantaldekoetan parte hartzea. Horrez gain, Aholku Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko sustatzen diren ekintzetan laguntzea.

- Aholku Kontseiluaren garapena eta sustapena hobetzeko laguntza ematea.

- Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea.

- Elkarte, Talde edo Kolektiboen kasuan, Udalari jakinaraztea euren Estatutuak aldatuz gero, aldaketa horiek izendapenetan eraginik duten aztertzeko.

- Jakinaraztea, entitatearen ordezkaria nahiz helbide soziala aldatuz gero.

- Erregelamendu honek nahiz indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste betebehar guztiak.

**6. *Bileren aldizkakotasuna eta funtzionamendua.***

Kirolaren Aholku Kontseiluak lau hilabetetik behin egingo ditu ohiko bilerak.

Lehendakariak beharrezkotzat joz gero, ohiz kanpoko bilerak egin ahal izango dira.

Era berean, eskubide osoko kideen erdiak ohiz

- Tener acceso a las actas y documentación del Consejo Asesor.

- Cuantos otros pudieran serles atribuidos por este Reglamento o por la legislación vigente que le sea de aplicación.

b) Deberes de las personas miembros del Consejo:

- Participar en las sesiones del Consejo Asesor y en los grupos de trabajo en que formen parte, además de colaborar en las actividades promovidas por el Consejo Asesor, en cumplimiento de los acuerdos adoptados.

- Contribuir al mejor desarrollo y promoción del Consejo Asesor.

- Respetar y cumplir lo dispuesto en el presente Reglamento.

- Comunicar al Ayuntamiento, en el caso de Asociaciones, Grupos o Colectivos, los cambios efectuados en sus Estatutos, por si este hecho afectara a los criterios de su designación.

- Comunicar los cambios que se produzcan de la persona que ejerce la delegación o el domicilio social de la entidad o asociación a quien represente.

- Cuantos otros pudieran serles atribuidos por este Reglamento o por la legislación vigente que le sea de aplicación.

***6. Periodicidad y funcionamiento de las sesiones.***

El Consejo Asesor del Deporte celebrará sesiones ordinarias cada cuatro meses.

Si la Presidencia lo considera necesario, podrán celebrarse reuniones extraordinarias.

Asimismo podrán celebrarse dichas sesiones a

kanpoko bilerak eskatzeko eskubidea izango du. Horrelakoetan, gehienez ere 15 egun naturaleko epean gauzatuko dira bilera horiek.

petición de la mitad de las personas miembros de pleno derecho. Dichas sesiones deberán celebrarse en un plazo máximo de 15 días naturales.

Deialdiak, gutxienez, zazpi egun natural lehenago egin beharko dira.

Las convocatorias se realizarán con un mínimo de siete días naturales de antelación.

Deialdiak eta dokumentazioa emailez bidaliko dira soilik.

Las convocatorias y la documentación se remitirán exclusivamente por correo electrónico.

Aholku Kontseilua eratutzat joko da kontsilukideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean. Nolanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da Aholku Kontsailuaren Presidentea eta Idazkaria bertan egotea.

El Consejo Asesor se constituirá validamente cuando estén presentes la mitad más uno de sus miembros. En cualquier caso será necesaria para su válida constitución, la presencia del Presidente y el Secretario del Consejo Asesor.

Aholku Kontseiluak hartutako erabakiak proposamen gisa hartuko dira kontuan, Kontseilukideak izendatzeko eta Kontseilua uzteko akordioak izan ezik, horiek erabakigarriak izango baitira.

Los acuerdos que adopte el Consejo Asesor tendrán forma y consideración de propuesta, salvo los acuerdos de nombramiento y cese de los miembros del Consejo Asesor que tendrán carácter decisorio.

Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira.

Los acuerdos serán adoptados por mayoría simple de votos.

Bozketetan berdinketa emanez gero, berriro bozkatzeari ekingo zaio eta, hala ere, berriro berdinketa emango balitz, gaia mahai gainean geratuko litzateke adostasun handiago bilatzeko asmoz.

En caso de que se produzca un empate en la votación, se efectuará una nueva votación y si persistiera el empate, se dejará el tema sobre la mesa y se buscará un mayor consenso.

Erregelamendu honetan jaso ez diren gai guztietarako, Udal Organoen Araudian eta toki erregimen araudiak kide anitzeko organoen inguruan ezarritakoa bete beharko da.

Para todo lo no previsto en el presente Reglamento se tendrá en cuenta lo estipulado en el Reglamento Orgánico municipal y en la legislación de régimen local en materia de órganos colegiados.

**AZKEN XEDAPENA**

**DISPOSICION FINAL**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 56.1, 65.2 eta 70.2 artikuluetan xedatutakoaren araberakoa, Erregelamendua honela argitaratu eta sartuko da indarrean:

a) Erregelamendu honen behin betiko onespenaren berri emango zaie Estatuko eta Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioei.

b) Jakinarazpenak hartzen direnetik kontatzen hasita hamabost laneguneko epea iragan ondoren, akordioa eta Erregelamenduaren testua Bizkaiko ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

c) Erregelamendu hau indarrean sartuko da **Bizkaiko** ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean.

Conforme a lo dispuesto en los artículos 56.1, 65.2 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, la publicación y entrada en vigor del presente Reglamento se producirá de la siguiente forma:

a) La aprobación definitiva del Reglamento se comunicará a la Administración del Estado y a la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca.

b) Transcurrido el plazo de qiunce días hábiles desde la recepción de las comunicaciones, el acuerdo y el texto del Reglamento se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Bizkaia.

c) Este Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Bizkaia.